

CREATIVE EUROPE MEDIA

Berlinale 2022

**creative
europe**

desk
Euskadi
MEDIA



Co-funded by
the European Union

EUSKAL ZINEMA
2022KO
BERLINALEN

COPRODUCTION MARKET

Berlinaleko 2022ko Co-Production Marketek '20.000 erle espezie' lana aukeratu du aurtengo ediziorako, 32 herrialdetako 34 proiekturen artean. Estibaliz Urresolak zuzendu du lana eta Gariza Films, Inicia Films eta Sirimi Filmsek ekoitzi dute. Berlinaleko Co-production Marketen 19. edizioa 2022ko otsailaren 12tik 16ra izango da, online.

Hautatutako proiektuetako ekoizleek aukera izango dute nazioarteko koprodukzio posibleak, salmenta-agentek, telebista kateetako arduradunak, finantzaketa-funtsen ordezkariak, streaming plataformetako zuzendariak eta banatzaileak ezagutzeko.

Hautatutako proiektuek 500.000 euro eta sei milioi euro arteko aurrekontua dute. Guztira 295 eskaera jaso dituzte.

Berlinale Co-production Market European Film Marketen (Berlinale) parte da eta Europa Creativa MEDIAk babesten du.



ALAUDA RUIZ DE AZUAREN 'CINCO LOBITOS' LANA BERLINALEN AURKEZTUKO DUTE



Alauda Ruiz de Azúa euskal zinemagileak idatzi eta zuzendu duen lehen film luzea da 'Cinco lobitos', eta Berlinaleko Panorama sailaren parte izango da. Bertan izango da lanaren mundu mailako estreinaldia.

'Cinco lobitos' filmean Laia Costa, Susi Sánchez, Ramón Barea eta Mikel Bustamante dira protagonistak, eta amatasunak eskaintzen dituen galdera-ikur batzuk sakontzen ditu. EITBren parte-hartzea izan du lanak.

Alauda Ruiz de Azúak hainbat film labur zuzendu ditu, besteak beste, 'Dicen' (2011). Lan hori 160 zinema-jaialditan egon zen eta 50 sari jaso zituen.

EUROPEAN FILM PROMOTION SHOOTING STARS 2022

European Film Promotonek 25 urte bete ditu aurten, eta urteroko European Shooting Stars, hautaketaren berri eman du.

Berlinaleren 72. edizioan, programazioa hibridoa eta berezia izango da (2022ko otsailaren 10etik 20ra) eta Covidaren ondorioz ezarritako egungo neurrietara egokituko da. Goraka ari diren Europako hamar aktore hautatu dituzte otsailaren 11tik 14ra nazioarteko prentsaren, industriaren eta publikoaren aurrean aurkezteko. Zehazki, European Shooting Stars sari-banaketako zeremonia otsailaren 14ean izango da, Berlinale Palasten.

Aktore hauek hautatu dituzte:

- Gracija Filipovic (Kroazia).
- Marie Reuther (Danimarka).
- Anamaria Vartolomei (Frantzia).
- Emilio Sakraya (Alemania).
- Clare Dunne (Irlanda).
- Hanna van Vliet (Herbehereak).
- João Nunes Monteiro (Portugal).
- Timon Sturbej (Eslovenia).
- Evin Ahmad (Suedia).
- Souheila Yacoub (Suitza).



MEDIA EKITALDIAK



EFM

EUROPEAN FILM MARKET
IT ALL STARTS HERE

10 – 17 FEB 2022

OSTIRALA, 2022KO OTSAILAK 11

12:00- 13:00 | Building up publicity: How sales agents spark off international distribution

Zertan murgiltzen da salmenta-agentea film bat nazioarteko zinema jaialdi batera gonbidatzen dutenean? Egun zer estrategia erabiltzen da film bat sustatzeko? Zein da estrategia horren xede-taldea? Eta nola komunikatzen da haiekin salmenta-agentea? Nor dira ezinbesteko bazkideak? Zer zeregin du ekoizleak? Sustapenean nola hartzen dute parte zuzendariak eta aktoreek? Panel honetako partaideek esperientziak partekatuko dituzte, nazioartean egiten duten sustapen- eta marketin-lanen estrategiak aipatuz eta azalduz. Etorkizunerako ikuspegi posibleak jorratuko dituzte.

Hizlariak:

Tine Klint, Level K-ko zuzendari kudeatzailea (Danimarka)

Hédi Zardi, Luxboxeko zuzendari kudeatzailea (Frantzia)

Moderatzailea:

Didar Domehri, Maneki Films-eko ekoizlea (Frantzia)

ASTELEHENA, 2022KO OTSAILAK 14

9:30- 11:00 | EUROPEAN FILM FORUM – BERLINALE 2022 - Towards a climate neutral audiovisual sector

Datorren otsailaren 14an aurtengo lehen European Film Forum izango da Berlingaleren barruan, 9:30etik 11:00etara. 'Giro neutroa duen ikus-entzunezko sektore baterantz' izenburupean, mahai-inguruak Europa osoko adituak izango ditu, beti bezala, eta haien ikuspegiak adieraziko dituzte. Karbono-isuriaren neurketa eta ekoizpen berde edo ekologikorako etiketak Europa osoan isuriak murrizteko hartu diren ekimen publiko eta pribatu askoren erdigunean dauden arren, koordinazio-faltak mugatu egiten du mugez kanpoko elkarlana.

Gogorarazi nahi dugu European Film Forum ikus-entzunezko industrian interesa duten aldeekin osatutako elkarrizketa dela, eta garai digitalotan Europako ikus-entzunezkoen industria indartzeko agenda politiko estrategikoa garatzea dela helburua.

Hizlariak:

Thierry Breton, Europako barne-merkatuko komisarioa (Europako Batzardea)

Lucía Recalde, Ikus-entzunezko unitateko eta MEDIA Programako burua (Europako Batzardea)

Fiona Ball, Bigger Picture taldeko zuzendaria (Sky Groupeko negoziaketa, jasangarritasun eta gizarte-eragineko arduraduna)

Roser Canjela Mas, BAFTA Espainiako nazioarteko zuzendaria
Philip Gassmann, zuzendaria eta ekoizlea, ekoizpen jasangarrian aditua (Alemania)
Maximilian Höhnle, Ekoizlea eta aholkularia (Alemania)
Alexandra Lebret, European Producers Clubeko zuzendaria, Frantzia
Luz Molina, European Green Screen Projec (Interreg Europe) Promálagako (Espainia) arduraduna

Moderatzailea: **AC Coppens** (The Catalysts, Germany)

Estekak:

<https://europeanfilmforum.eu/>

<https://digital-strategy.ec.europa.eu/en/events/european-film-forum-72nd-international-film-festival-berlin>

ASTEARTEA, 2022KO OTSAILAK 15

10:00- 11:00 | Sino-European Forum: The Chinese Market 360°

Zortzigarren urtez jarraian, Txina eta Europako Bridging the Dragon eta European Film Market ekoizleen elkarteek ohiko programazio trinkoa antolatu dute, Txinan oinarrituta bereziki.

Covida hasi zenetik, merkatu horretara hurbiltzea gero eta zailagoa izan da. Merkataritza-gerra eta tentsio geopolitikoak, nazioarteko edukien falta, goraka ari den nazionalismoa: faktore horiek guztiek Txina gero eta isolatuago egoitea eragin dute. Aurreko denboraldian, bertako ekoizpenek tokiko produktuen % 85 hartu zuten. Azken urteotan, ez da halako zenbaki alturik ikusi. Koprodukzioak eta inportatutako filmen erosketak inoiz baino baxuagoak izan dira.

Alabaina, Txina filmetarako irteera izugarria da oraindik ere; izan ere, 80 mila pantaila ditu, AEBk baino gehiago; telebistaren eta streamingen panorama ikaragarria da, eta eduki on eta kalitatezkoekiko gosea areagotzen ari da. AEBekin dituen loturen ahultzeak aukera berriak zabaldu dizkiete Europako filmei. Aurreko urteekin alderatuta, 2021ean, AEBtik kanpo inportatutako filmen kopuruak markak hautsi zituen, eta % 62,5era heldu ziren.

Horrek erakusten du estrategikoki merkatu esanguratsua dela oraindik ere, batez ere pandemia osteko mundu-mailako berririkierari begira. Merkatu hori ezagutzea eta loturak izatea inoiz baino garrantzitsuagoa da.

Hizlariak:

Chun Liu, Txina Film Co-production Corporationeko zuzendari nagusia
Donghui Wang, The Seventh Art Pictureseko ekoizlea
Cristiano Bortone, Bridging the Dragon Alemania
Fan Zhang, Bridging the Dragon Txina

15:00- 16:00 | Changes to the development support in Creative Europe MEDIA

Jolien Willemsens Europa Creativa MEDIAko edukien klusterreko arduradunak eskainiko du saio informatiboa, eta Co-development deialdiak programazio berrian izan dituen aldaketak azalduko ditu.

MEDIAK
BABESTUTAKO
FILMAK

Aurtengo Berlinaleko 72. edizioak (2022ko otsailaren 10etik 20ra) Europa Creativa MEDIAk babestutako film ugari izango ditu hainbat sailetan.

Sail Ofiziala:

Alcarrás, Carla Simón (Espainia-Italia) – MEDIA Desarrollo Slate Fundingek babestua
Everything will be ok, Rithy Panh (Frantzia-Kanbodia) – MEDIA Desarrollo Slate Fundingek babestua.

Berlinale Series:

Suspicion, Michal Blasko (Txekiar Errepublikak-Frantzia) – MEDIA Desarrollo Slate Fundingek babestua.

Berlinale Panorama

Viens je t'emmène, Alain Guiraudie (Frantzia)
Dreaming walls, Amélie van Elmbt eta Maya Duverdier (Belgika, Frantzia, Estatu Batuak, Herbehereak Suedia)
Nelly & Nadine, Magnus Gertten (Suedia, Belgika, Norvegia)

Berlinale Generation KPlus

Knor (Oink) stop motion animaziozko filma, Mascha Halberstad (Herbehereak-Belgika)



**creative
europe**

desk

Euskadi
MEDIA



Co-funded by
the European Union